III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	**Doktoratu aurreko ikertzailea-"IKERTALENT 2026"**
PROIEKTUAREN KODEA	**P7**
TITULUA	**GAZTOMICS:** Gazta artisauen terroir mikrobiarraren azterketa integratua eta hartzigarri autoktonoen garapena
ZENTROA	**LEARTIKER**
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	Esneki Zentroa / Biologia Molekularra eta Metagenomika
IKERKETA - TALDEA	Iratxe Zarraonaindia, Igor Baroja, Malen Sarasua, Ane Olañeta
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	Iratxe Zarraonaindia eta Igor Baroja
PROIEKTUAREN LABURPENA	GAZTOMICS proiektuak gazta artisauen *terroir* mikrobiarra aztertzea du helburu, mikrobiota autoktonoa eta haren funtzio metabolikoak karakterizatuz. Horretarako, esne gordina, gaztandegiko ingurunea, gainazalak eta ontze-prozesuko laginak aztertuko dira, 16S/ITS sekuentziazioa, shotgun metagenomika, bioinformatika eta mikrobiologia klasikoa uztartuz. Interes teknologikoko mikroorganismoak identifikatuko dira, andui autoktonoak isolatu eta karakterizatu, horrela hartzigarri funtzional berriak garatzeko. Proiektuak inpaktu zientifiko, teknologiko eta sektorial nabarmena izango du, euskal gaztagintza artisauaren kalitatea, erreproduzigarritasuna eta lehiakortasuna hobetuz. LEARTIKERREN azpiegiturak, talde espezializatuak eta sektorearekiko lotura zuzenak bideragarritasuna eta transferentzia bermatzen dituzte.
BESTELAKO INFORMAZIOA	**Sartzeko titulazioak:** Bioteknologia, Biokimika eta Biologia Molekularra, Biologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo antzeko gradua/lizentziatura. Lehentasuna emango zaio Biologia Molekularra, Biomedikuntzako, Mikrobiologiako edo antzeko Master bat eta arloan esperientzia baldin badu. **Proiektuaren deskribapena:** Gazta artisauen terroir mikrobiarra aztertuko da, esne gordina, gaztandegiko ingurunea, gainazalak eta ontze-prozesuko laginak karakterizatuz. Horretarako, 16S/ITS sekuentziazioa, shotgun metagenomika, bioinformatika eta mikrobiologia klasikoa erabiliko dira. **Doktoratu aurreko ikertzailearen jarduerak:** Mikrobiota autoktonoaren karakterizazioa, datu metagenomikoen analisia, interes teknologikoko mikroorganismoen identifikazioa, andui autoktonoen isolamendua eta karakterizazioa, eta hartzigarri funtzional berrien garapena eta balidazioa.
HARREMANETARAKO DATUAK	Igor Baroja (ibaroja@leartiker.com)